

Igartubeiti Baserri Museoa: Askatasuna ematen dizu artzain izateak?

Josebe: Bai, bai, bai. Ni aske sentitzen naiz. Aske sentitzeak ez du esan nahi ardurara gabe bizi zeala, justu kontrakoa. Zeure bizitzaren ardurara hartzen dezu ehuneko handi batean. Gu ez gara soldatapeko artzaiak eta hau edozein autonomok daki, ezta? Zure jardueraren erantzukizuna zurea da ehuneko ehunetan eta hori, bizidunekin lan egiten dezunian, ba biderkatu egiten da. Baina ni aske sentitzen naiz nere lanbidean. Askatasun falta hasten naiz sentitzen, beharbada, kalera jeisten naizenean, ezta? Edo jendarte honetan dagoen funtzionamendua, hiritik eta hirira begirako funtzionamendu hortan sartzen naizenean.

IBM: Nola ikusten duzu zure ingurua?

Josebe: Nik hemen, ez dakit, sentitzen det erritmoa beste bat dala. Kalian dagoen erritmoa eta kalia ari naizenean, ari naiz hiri eremuaz, eremu urbanoa deitzen den hortan, patxada gutxi ikusten det. Nahi baldin badezu, gure bizimodua sinpleagoa, da baina ez gera sinplekerian bizi. Bizitzan oinarritzako diren gauzei begira bizi gara, eta beharbada hiriko bizimoduan funtsik, bizitzarako funtsik ez daukaten gauzei begira bizi dira gehiago.

IBM: Zein dira oinarritzako funts diezun horiek?

Josebe: Jatea, ondo jatea, ez tripa betetzea, baizik eta elikatzea. Beroa izatea, horrek esan nahi du su egurra egin behar dala. Janzteia, maitasuna, elkar bizitza goxoa izatea seme-alabekin, etxekoen artean, "wwooferrak" etortzen direnean, berdin. Sentitzea nonbaiten horren parte zarela eta nik uste det oso garrantzitsua dala hainbeste ordu eskaintzen dizkiogunean lanbideari, lanbide horrek zentzua daukela, munduari zeozer eskaintzen diola.

IBM: Nola proiektatzen da gaur egun baserriaren figura?

Josebe: Bai, nik sentitzen det lehen gehiengo eta zabala zan baserri mundua gero eta bazterrago gelditzen ari garela eta ez bakarrik naturarekiko daukagun harreman berezi honi begira. Iruditzen zait ere gurea folklorerako gelditu dala, eta folkloristak haserretuko zaizkit, baina ez folklore zentzu, ez dakit, jatorrian, baizik eta parke tematikorako aitzakia ere izan gaitzkeela. Folklorizazio txar horren baitan sartzen da baserri eta baserriaren irudia, ez. Baserri zaharra, tradizioa, ez dakit, baserri zaharra, normalean gizona. Eta noski nik ez det neure burua hor ikusten. Eta orokorrean, bueno, nik ez dakit artzainek ze itxura daukaten, baina behin baino gehiagotan gertatuko zitzaion ere beste edozein emakume baserriarrentzutea "Ah, ba ez daukazu itxurarik". Ez dakit ze itxura eduki beharko genukeen, baina hauxe da daukaguna, ez daukagu besterik.

IBM: Zergatik idazten duzu?

Josebe: Ba, idazten det neure burua ordenatzeko. Idazten det askatasun bidea topatzen dudalako idazketan. Lekukotasun bat ere uzteko, hau noizbait gertatu zan. Eta ez dakit, behar dudalako. Behar batetik abiatzen da, bai, gustatzen zait, irakurzalea naiz eta askotan batera doaz ezta, bi zaletasunak, idazteko zaletasuna eta irakurtzea.

IBM: Artzaintza ere lotuta dago zaletasun horiekin?

Josebe: Bai, nik uste det baietz. Lehen aipatzen genituen erritmoak, ezta? Ez dakit tokatu zaizuen asko ardien artean ibiltzea, edo behiekin. Halako sentsazio bat dago, dago patxada, dago beste erritmo bat. Eta hausnarkariek daukaten berezitasuna da ba jaten duten hori gero hausnartu egin behar dutela. Sabeletik berriz be ateratzen da jan duten hori eta hor edukitzen dutela. Eta niretzat idaztea horixe da, hausnar egitea. Bai, eta gainera gure lanbideak aukera ematen du etengabe hausnartzen egoteko.

IBM: Zein helbururekin idatzi zenuen “Hausnarrean”?

Josebe: Liburuaren kasuan, argi neukan helburua zala artalde baten lekukotasuna uztea. Esatea hemen, egon dira pertsona batzuk bizipen batzuk izan dituztenak. Ze bizimodu hau eta bizipen hauek ez dira orokorrean oso zabalduak. Hauetaz ez da hitz egiten. Eta nik uste, ba liburu honen, ez dakit funtzioetako bat badela normalean hitzegiten ez den horren lekukotasuna uzteko, ezta?

IBM: Literatura aldaketa sozialerako tresna izan daitekeela uste duzu?

Josebe: Bai, nik esango nuke eraldaketa sozialerako ezinbesteko tresna dela artea, orokorrean, eta literaturak nik uste det, askea den heinean, balio behar du bai gertatzen ari denaren lekukotasuna uzteko, baina balio behar du ezinbestean bestelako eszenatokiak irudikatzen laguntzeko, etorkizun posibleak, bizitza posibleak irudikatzeke balio beharko lukeela iruditzen zait.

IBM: Irakurketa gomendiorik ba al duzu?

Josebe: Bueno ba nik ekarri ditut bi liburu, beno niretzat oso gertukoak, ez dakit zenbat aldiz irakurri ditudan, baina dexente. Lehendabizikoa Leire Milikua Larramendiren “Lur gainean itzal azpian, emakume nekazariak eta parte hartzea”. Liburu honetara gerturatzen danak topatuko ditu emakume baserritarren gainean dauden iritzi, aurreiritzi, mito eta abar luze bat eta isilean gelditzen diren gauza asko deskubritzeko aukera izango ditu.

Eta bestea, Gustavo Duch da egilea, “Cuentos del progreso, conversaciones con el pastor” du izenburu. Oso liburu txikia da. Hiru zati ditu. Gustavo juten da Geromo Aguado artzainaren etxera. Han izandako elkarrizketa. Gero Geromok itzultzen dio bisita Bartzelonara, eta gero pandemia sartzen da eta online aritzen dira. Nik uste det bizitzaren gaineko hausnarketa interesgarri eta sakonak egiteko aitzaki oso polita dela liburu hau ere.

IBM: Hitzak lotzen.

IBM: Eskuak.

Josebe: Lana.

IBM: Hiria.

Josebe: Arrotza.

IBM: Basoa.

Josebe: Arnasa.

IBM: Heriotza.

Josebe: Bizitza.

IBM: Bakardadea.

Josebe: Bilatua.

IBM: Elikadura.

Josebe: Funtsa.

IBM: Ekologikoa.

Josebe: Ezinbestekoa.

IBM: Auzolana.

Josebe: Beharrezkoa.

IBM: Denbora.

Josebe: Altxorra.

IBM: Etorkizuna.

Josebe: Posiblea.